

# Liburuak

KRITIKA

**Hutseaniko hazkurria eta beste.**  
Joxemiel Bidador.  
Pamiela.  
120 orrialde. 14 euro.



**Helduen literatura**  
*Igor Estankona*

## Izpirituaren bazka

JOXEMIEL BIDADOR mingarriro gazte hil zenean, gogoan dut arrotz egin zitzaizkidala egunkarietako laudorioak: dantzari eta ikertzaile, isildu gura duten Nafarroako literaturaren antologo, historialari nekagaitz... Itzuli naiz une haietara, eta hilerriko haize hotza datorkit; gizonaren epeltasuna. Bidador amultsu hori, alabekin txoratua, Euskal Herria bezain nafarra, barrekabarreka zegoena beti, kausitu dut berriro liburu honetan. Euskal Idazleen Elkarteko idazkaria zeneko akta bat bezain perfektua bere elea, igartzen da maitasunez orraztu dutela Irigarai eta konpainiak Pamielan antologia hau. Alargunaren adostasunarekin azken ukituak harturik, bertan gordeko da betiko Bidadorren bihotz handia.

Errespetuz eta emozioz irakurri dut liburua, ulertuz zenbait muga. Kontuan hartuz, esate baterako, azken parteko *Andrea eta desgizonaren gauzatzea* eta *Garañoko gatazkaren bart bezperan egin besta isila* iruinsimerean poesia osoa liburu bakarrean biltzeko gogoz ekarri dituztela. Izan ere, lehiaketetan saritutako bi lanok ez dira ezinbestekoak. Lehena neurtitz ilunekin idazteko ahalegina da, eite klasiko eta formalistetan barna duda-mudan egingako bidea. Bigarrena, berriz, gure sustrai, historia eta folkloreak esplorazio sentimentala da, balio arean mugatukoa.

*Hutseaniko hazkurria* beste kontu bat da, horratik. Bidadorrek kontatzen digu izatearen ibaiek beldurtzen dutela, pozarekin nahastean datozen urek. Esperantza eta nekeen orrialdeotan poesia barne-barnekoa dago, existentziari eta ni-ari buruzko poemekin hasten dena –Barneko harrarena edo Beste niarekin eleketan–, eta era berean barne-behaketa iruzurtiaren kritika bihurtzen dena aurrerago: “*Nia ez da agertzen egungo (euskal) poesia (post)modernoan, / baizik ere niren projekzio faltsua, / karikatuta, / (...)*”.

Dilema pertsonalotatik abiatuak zabaldu egiten da liburua alegiazko zein benetako zelaietara. Denboraren iragaiteaz eta naturaren ispiluez mintzo zaigu. Noizbehinka, hizkuntzari buruzko gogoeta bat oparitzen digu, edo historiari buruzkoa. Plazerez jarraitu ditut bere ibilerak, bere ezbaiek eta segurantzaz-itxurak, eta hamazortzigarren orrialdera itzuli naiz behin eta berriro. Poema ikaragarri eder horretara, eta Baternaineko hilerriko agur-iluntzera, behin eta berriro. Poema horrek, berak bakarrik, justifikatuko luke liburu bat, bizitza oso bat idazten. ■

## R. M<sup>a</sup> Azkue sarietako irabazleak

Gazteak izanagatik ez zaie zer kontatua falta Resurrección María Azkue saria irabazi duten idazleei. Bi kategoria izan zituen literatura lehiaketak duela bi urteko edizioan: A mailan 1996tik 1999ra bitartean jaiotakoak lehiatu ziren eta B mailan 1992tik 1995era bitartean jaiotakoak. Euskaltzaindiak argitaratu berri ditu 2009an saridun izan zirenen



**R. M<sup>a</sup> Azkue saria.**  
Batzuen artean.  
Euskaltzaindia.  
108 orrialde.

lanak, narratiba eta poesia alorretan. Mikela Atxoa-rena, Maialen Akizu, June Ugalde, Oriane Aiestaran, Lorea Solana, Nerea Eizagirre, Amaia Iturriotz, Goiuri Unanue, Leire Arenas eta Nerea Ibarzabal izan ziren irabazleak, batzuk behin baino gehiagotan. Euskal letrik harrobi osasuntsua duten seinale. ■

## André Leroi-Gourhamen ‘Munduaren sustraiak’

Antropologoa, arkeologoa eta etnologoa izan zen André Leroi-Gourhan. Ikerketa ugari egin zituen bai Europan, bai Ozeano Bareko iparraldean eta XX. mendeko arkeologo bikainen artean azaltzen da haren izena, besteak beste, erabili zituen metodoek eta teoriak Historiaurrearen ikuskera irauli zutelako. Liburu honetan Claude-Henri Rocquet idazleak egin zizkion hamabi elkarrizketa biltzen dira, Leroi-Gourhamen biografia intelektuala, ikerketak eta teoriak zuzenean ezagutzeko aukera paregabea eskainiz. Gaiak argialetxeak plazaratu du lehen aldiz euskaraz obra interesgarri hau Jaione Alberdi Gabilondok egindako itzulpenari esker. ■

**Munduaren sustraiak.**  
André Leroi-Gourham.  
Gaiak.  
273 orrialde.  
22 euro.

